

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Uztailaren 20ko 227/2017 Foru Agindua; honen bitartez, Iruña Oka udalerriko Planeamenduko Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualaren espedientea zenbait baldintzekin behin betiko onartu zen, Amvisako ur hornidurako azpiegitura berri bati dagokionez

I. AURREKARIAK

Lehenengoa. 2015eko azaroaren 11ko saioan, Iruña Okako Udalak erabaki zuen hasierako onarpena ematea Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketaren espedienteari, Amvisako ur hornidurako azpiegitura berri bati dagokionez, baita hilabetez jendaurrean jartzea ere; hala, kasuan kasuko iragarkiak plazaratu ziren 2015eko azaroaren 20ko 136. ALHAOn eta 2015eko azaroaren 20ko El Correo egunkarian, eta udalerriko Administrazio Batzarrei jakinarazi zitzairen.

Bigarrena. Jendaurreko epean ez zen alegaziorik aurkeztu, eta Udalak, 2016ko abenduaren 14ko bilkuran, behin-behinean onartu zuen espedientea.

Hirugarrena. Espedienteak Euskal Herriko Lurralde Antolamendu Batzordearen aldeko txostena jaso zuen apirilaren 6ko 2/2017 saioan, Arabako Hirigintza Planeamenduko Atalarena.

Laugarrena. Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2017ko apirilaren 25ean aurkeztutako idazkiaren bitartez, Iruña Okako Udalak espedientea bidali zuen, behin betiko onar zedin.

Bosgarrena. Espedienteak ez du ingurumen ebaluazio estrategikoko prozedura igaro; izan ere, ingurumen ebaluazioa aztertzen ari da aldaketa honekin batera izapidetzen ari den plan bereziaren onarpen prozeduraren testuinguruan.

Seigarrena. Horrez gain, Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 14ko 155/99 Foru Dekretuan jasotakoa betez, Arabako Hirigintza Batzordeak espediente honi buruzko txostena eman zuen uztailaren 13ko 4/2017 Saioan.

II. OINARRIAK

Lehenengoa. Espedientearen helburua Azpiegituren Sistema Orokorra udal planeamenduan integratzea da, Amvisa enpresak urak Langraiz Okara bideratzeari dagokionez. Tutuaren trazadura osoa Iruña Oka udalerrian dago kokatuta, eta zati handiena hainbat kalifikazioekin lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako eremutik doa.

Bigarrena. Une honetako bideraketaren funtzionamendua hobetu eta bermatzeko trazadura aldatu behar da, eta horretan oinarritzen da aldaketaren justifikazioa.

Horretarako, azpiegitura berria Iruña Oka udalerriko hirigintza planeamenduan integratzea beharrezkotzat jo da, sistema orokor gisa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 54.2.c artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Hirugarrena. Proposatutako aldaketak planeamendu ahalmenaren titularra den administrazioak "Ius Variandi" baliatzea dakar, eta, interes orokorrak betetzera bideratutako aldaketa bat denez, ez dago onartzeko inolako eragozpen legalik.

Azpiegituraren zati bat lurzoru urbanizaezinetik doa, "lehengoratu beharreko babestutako baso" gisa kalifikatutakoa; horrelakoetan ez da onartzen proiektatutako azpiegituraren parekoak ezartzea.

Hala ere, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Iraunkortasuneko Zerbitzuak 2017ko urtarilaren 16an emandako ingurumen memorian, aipatutako azpiegituraren Plan Bereziaren ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozeduran ez zaio inolako eragozpenik jarri lehengoratu beharreko babestutako baso gisa kalifikatutako lurzorutik doan trazadurari. Trazadura aldatzeak zailtasun tekniko nabarmenak ekarriko lituzke, eta kontuan hartuta aipatutako lurzorutik igarotzen den azpiegitura zatia soilik 120 metrokoa dela, eta harrobi batera iristeko bide baten ondorioz eraldatzen ari den inguru batean dagoenez, ez dago inolako eragozpenik proposatutako azpiegitura lehengoratu beharreko babestutako baso lurzorian kokatzeko, betiere lurzoru kategoria horretan lurrazpiko azpiegitura lineak finkatzea baimentzen denean. Aipatutako zehaztapena udalak prestatu beharreko testu bateginaren dokumentuan jasoko da, jendaurreko informaziopean jarri aurretik.

Laugarrena. Sarea egitea bideragarria izan dadin, indarrean dagoen hirigintza araudiko 184. artikulua aldatu da, "Zerbitzuko eta oinarrizko azpiegituren sistema orokorra" izenekoa; hain zuzen ere, bosgarren puntu berri bat gehitu zaio, "AMVISaren Ur Hornidurako Sistema Orokorra" izenekoa; bertan, besteak beste, Sustapen Ministerioi Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiak eskatutako zortasun aeronautikoei dagokien araudia jaso da. Horrez gain, Planeamenduko Arau Subsidiarioetako bi plano aldatu dira (ez daude indarrean), egitura antolamenduari buruzkoak (kalifikazio globala); horietan etorkizuneko hornidura sarea jaso da. Azkenik, ur tutua eta igerilekuetara iristeko sARBIDE biribilgunea (A-2622 errepidea) gurutatu izanari buruzko xehetasunei dagokien beste bat eta partzelari eta zortasun aeronautikoei buruzko beste batzuk ere gehitu dira.

Bosgarrena. Iruña Oka udalerriko hirigintza planeamendua eta hirigintza legeria aplikagarria kontuan hartuta agiria aztertutik, zuzendu beharreko zenbait alderdi antzeman dira, ondoko atal hauetan zehazten direnak, hain zuzen:

- Planeamenduko Arau Subsidiarioen 184. artikulua bertsioa eguneratu egingo da laugarren puntuari dagokionez, "San José de los Llanosko industria poligonoko 2. sektoreko ur hornidurako sistema orokorra eta udalerriko Saneamenduko Sistema Orokorra"; indarrean dagoen araudian zein aldatutakoan, behin betiko onartutako arauen aldaketa puntual batean puntu horren edukia jaso baita (udalerriko Saneamenduko Sistema Orokorra sortzeari eta San José de los Llanosko industria poligonoko 2. sektoreko hornidurari dagokionez). Halaber, planoetan aipatutako aldaketa puntualaren grafia jasoko da.

- Bi zundaketa puntuak hartuko dituen ingurutzailaren plantan xedapena eskala egokiagoan definituko da, Planeamenduko Arau Subsidiarioen 184. artikuluko 5. puntuko hirugarren atalean ezarritakoa betez, hau da, aipatutako zundaketak hartuko dituzten eraikinek ez dute gainditzen plantan mugatutako azalera.

- Arau Subsidiarioen "Bideragarritasun ekonomiko-finantzarioko azterlanean" aldaketa honek proposatutako hornidura azpiegiturako sistema orokorreko aurreikuspen ekonomikoak gehituko dira, nolabait, benetan egitea ekonomikoki bideragarria izatea bermatzeko (hau da: zenbatekoa, inbertsio horiek zein aurrekontu edota jarduketan kargura egingo diren, kalte ordainak, etab.).

- Dokumentu teknikoan "iraunkortasun ekonomikoko memoriaren" aldaketa integratuko da, Lurzoruaren eta Hiri Errehabilitazioaren Legearen testu bategina onartu zuen urriaren 30eko Legegintzako 7/2015 Errege Dekretuko 22.4 artikuluan eta 105/2008 Dekretuko 31.1.f. artikuluan eskatutakoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoa.

- Dokumentu teknikoaren euskarri informatikoari dagokionez, dokumentazio osoa, "iraunkortasun ekonomikoaren memoria" zein "Bideragarritasun ekonomiko-finantzarioko azterlanaren" zuzenketa, aurkeztuko da fitxategi ez editagarrietan (*.pdf luzapena) zein fitxategi editagarrietan (zehazki, planoak *.dwg –kasuan kasuko plumilladun *.ctb fitxategia gehituz– edo *.shape luzapeneko fitxategietan aurkeztu beharko dira, eta testu, berriz, *.doc luzapeneko fitxategian).

Seigarrena. Aipatutako azpiegituren trazaduran eragina izan dezakeen lurralde antolamenduko tresnei dagokienez, Euskal Herriko Lurralde Antolamendu Batzordeak xedatutakoa aplikatuko da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 91. artikuluan ezarritakoa dela bide.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Iruña Oka udalerriko Planeamenduko Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualaren espedientea behin betiko onartzea, Amvisa ur hornidurako azpiegitura berriari dagokionez, honako baldintza hauekin:

1. Lurzoru urbanizaezineko babestutako eta lehengoratu beharreko baso eremuan baimendutako eraikuntza erabileren araubidea aldatu egin beharko da, eta lurrazpiko azpiegitura linealak baimentzen direla adierazteko atal bat jasoko da.

2. Ebazpen honen bosgarren oinarrian jasotako dokumentuak eta aldaketak bildu beharko dira.

Bigarrena. Lehen xedapeneko lehenengo atalean ezarritako baldintza funtsezkoa da; horrenbestez, aldatutako artikuluen bertsio berria jendaurrean jarri beharko da, dokumentu berria Arabako Foru Aldundira igorri baino lehen, ezarritako baldintzak betetzat jotzeko, argitaratu eta eginbideei ekiteko.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da.

Laugarrena. Administrazio bidea agortzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko uztailaren 20a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO